



**Ebazpena, 2019ko uztailaren 22koa, Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena. Ebazpen horren bidez 2018-2019 ikasturteko bigarren zikloko haur hezkuntzako, lehen hezkuntza eta derrigorrezko bigarren hezkuntza egiten ari diren ikasleen garraiorako banan-banako diru-laguntzak eskuratzeko egin zen deialdiaren 6.4) artikulua esleitzen da behin-betikoz.**

Hezkuntza Saileko sailburuaren 2018ko abenduaren 18ko Aginduaren bidez, 2018-2019 ikasturteko bigarren zikloko haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta derrigorrezko bigarren hezkuntza egiten ari diren ikasleen garraiorako banan-banako diru-laguntzak eskuratzeko deialdia egin zen (2018ko abenduaren 28ko EHAA).

Hezkuntza Saileko, 2019ko ekainaren 12ko sailburuordearen Ebazpenaren bidez ebatzi zen aipatu den deialdia, behin-behineko izaeraz, 6.4 artikulua ezarritakoaren arabera. 2019ko ekainaren 28an argitaratu zen "euskadi.eus" web-guneko iragarki taula elektronikoan, eta alegazioak aurkezteko epea ezarri zen.

Kontuan hartuta ez direla alegazioak aurkeztu, honako deialdi hau arautzen duen Aginduaren 8. artikulua arabera,

**EBAZTEN DUT:**

Lehenengoa: deialdiaren 6.4 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten ikasleen diru-laguntzak esleitzea behin betiko,

Mila ehun eta hirurogei euro eta laurogei zentimoko (1.160,80 €) diru-kopurua esleitzea.

Bigarrena: deialdiaren behin betiko esleipen hau eta onartuak izan diren eskabideen zerrendak argitara ematea "euskadi.eus" web-guneko iragarki taula elektronikoan, interesdunak jakinaren gainean egon daitezten.

Hirugarrena: behin betiko ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahalko zaio Hezkuntza sailburuari hilabeteko epean, "euskadi.eus" web-guneko iragarki taula elektronikoan ebazpen honen berri ematen den hurrengo egunetik kontatuta.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko uztailaren 22an



Olatz Garamendi Landa  
Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea

HEZKUNTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN